

— hotsein! ≡ adierazpena —

Andra Mari Ikastolak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta Sakanako Mankomunitateak, 2023ko Nafarroa Oinezen urteko egitarauaren barnean, EMAN ARNASA GUREARI jardunaldia antolatu dugu, euskarak eta euskarazko irakaskuntzak dituen erronken gaineko hausnarketa egiteko. Eta jardunaldian parte hartu duten adituek ateratako ondorioak oinarri hartuta, honako aldarrikapen hauek egin nahi ditugu:

- 1.- Euskararen eta euskal irakaskuntzaren aldeko aldarrikapen tinkoa egin nahi dugu.
- 2.- Aldarrikatu nahi dugu euskararen arnaguneak estrategikoak direla euskararen normalizaziorako.
- 3.- Euskararen arnaguneetan eta herri euskaldunetan bizi garen herritarrok hizkuntz lege babes osoa eta hizkuntz politika bereziak, ausartak eta integralak behar ditugu euskaraz bizi ahal izateko.
- 4.- Ikasle migranteak eta zaugarriak integratzeko eta euskara beregana dezaten baliabideak behar dira ikastetxeetan zein ikastetxeetatik kanpo.
- 5.- Nafarroan D ereduak arnasberritzea behar du. Bere sustapenerako jarrera aktiboa eta babes instituzionala behar ditu.
- 6.- Nafarroa Garaian D ereduaren inguruan gabiltzan eragile desberdinen arteko adostasun zabala, elkarlana eta aliantza sustatzea beharrezkoa dugu.
- 7.- Nafarroa Garaiko edozein ikaslek euskarazko murgiltze ereduan ikasteko eskubidea izan behar du.
- 8.- Nafarroako ikasle guztiei euskararen gutxieneko ezagutza edukitzea bermatu behar zaie, bertako hizkuntza baita.
- 9.- Euskara eta euskal kulturaren transmisioa bermatzeko, ezinbestekoa da Euskal Curriculuma garatzea eta implementatzea.
- 10.- Euskara jakitea eta erabiltzea denon eskubidea izan dadin, beharrezkoa da euskara Nafarroa Osoan ofiziala izatea.

Lakuntzan, 2023ko apirilaren 29an.

